
OGI BATEN ERDIA ETA LIBURU BAT

Testua: **FEDERICO GARCÍA LORCA**

Itzulpena: **JUAN LUIS ZABALA**

Tradución ao galego: **HENRIQUE ALVARELLOS**

Traducció al català: **MIQUEL DESCLOT**

Paper-azalezko koadernaketa. 128 or. 12 x 19 cm. 9 €.

ISBN 978-84-1343-000-3. Teoría.

*... Liburu batu eta sailkatu multzo bat den liburutegia,
ahots bat ezjakintasunaren aurka; inoiz itzaltzen ez den argi bat
iluntasunaren aurka. Inor ez da jabetzen, eskuetan liburu bat
duela, zenbat ahalegin, zenbat min, zenbat bijillia, zenbat odol
kostatu den. Liburu da, lehiakiderik gabe, gizateriaren lanik
handiena...*


1931ko irailean Federico García Lorcak bere jaioterri

Fuente Vaquerosko liburutegia inauguratu zuen hitzaldi zirrargarri baten bidez, liburu eta irakurketa laudatuz ezjakintasunaren aurkako ezagutza iturri gisa, bizitzeko oinarriko premietatik haragoko elikadura espiritual gisa, sistema ekonomiko eta politikoak eragindako zapalkuntzaren aurreko askapen indibidual zein kolektiboaren horizonte gisa, kulturara irekitako leiho gisa... Liburu "gizateriaren lanik handiena" dela dio Lorcak eta haren historia errebasatzen du kronologikoki, harrizko aurrekarietatik bere garaiko paperezko argitalpenetara arte, inprentaren asmakuntza tartean dela, "arimen iraultza" izan zena, hark dioenez.

Haren hitzek liburutegiak omentzen dituzte daukaten gizarte funtzio garrantzitsuarengatik, komunitatearen kultura maila goratzen dutelako. Horregatik, deitoratu egiten du gerren basakeriak hainbat liburutegi suntsitu izana mendeetan zehar. Maisu-maistrak ere aipatzen ditu, txikienei irakurketaren plazera txertatzeko duten zeregina bete dezaten, nagusiak joera eta ideia guztietako irakurketez elikatzera bultzatzeaz gain, pluraltasunaren mesedetan.

«Ogi baten erdia eta liburu bat» hitzaldiaren argitalpen berezi hau, galizierazko, katalanezko eta euskarazko itzulpenekin hornitua, gaurkotasan betekoa izaten jarraitzen duen testu baten kalitate literario eta intelektualari egindako aitortza da; testua gure gertuko historian funtsezko figura izan den eta denaren pasioz eta konbentzimenduz idatzita dago. Haren izaera alai eta jostaria kutsatu egiten da liburuaren indar eraldatzailea gogora dakarren hitzaldi inspiratzaile honetan.

Liburuak!, liburuak! Hara hor hitz magikoa: «maitasuna, maitasuna» esatearen parekoa, eta herriek eskatu beharko luketena ogia eskatzen duten bezala edo beren lursailetarako euria irrikatzen duten moduan.



-
- **Gala:** liburuetarako eta irakurketarako irismenaren defentsa.
 - **Adin gomendatua:** irakurle autonomoak.
 - **Nabarmentzekoak:** «[12 poemas de Federico García Lorca ilustrados por Gabriel Pacheco](#)» liburuaren egilearena (Kalandraka).
 - **Liburuaren aurrerapena:** <https://issuu.com/kalandraka.com/docs/me-dio-pan-y-un-libro>
-

Federico García Lorca

(Fuente Vaqueros, 1898 - Víznar, 1936)

“Poema eta drametan espainiar landa-eremuko gizartearen hizkeraren, musikaren eta ohituren behatzaile zorrotz ageri da. Haren obraren berezitasunetako bat da giro hori, zehaztasunez deskribatua, alegiazko espazio bat nola bihurtzen den, non adierazpena ematen zaien giza bihotzaren ezinegon sakonenen arteko guztiei; desira, maitasuna eta heriotza, identitatearen misterioa eta sormen artistikoaren miraria”.

[Federico García Lorca Fundazioa]

<http://www.garcia-lorca.org>

“Hiltzen naizenean, hiltzen banaiz, utzi balkoia zabalik” – utzi zuen esanda. 38 urte zituen...

www. **Kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com
